# Beasain egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2011ko azaroa 35

Beasaingo Udala



# Parte hartuz, Beasain eraiki

4 MARTÍN GARCÍA ETA IGOR GARCÍA
"Beasain 1862 Trenaren bideetatik barna" argitaratu dute.

6 PARTE-HARTZEA
Udalak hainbat bide ireki ditu herritarren partaidetza sustatzeko

8 KOOPERANTEAK
Udalaren diru-laguntzei esker bi beasaindarrek lankidetza lanak egin dituzte.



"Antzerki tailerreko taldea" 1996, Rosa Rojo.



"Sari banaketa", 2009. Xabier Eskisabel.

"Jauregiaren ekialde eta iparraldeko fatxadak", 1998, Juantxo Agirre.





"Beasain. La Iglesia Parroquial". Indalecio Ojanguren.

# Beasain eta beasaindarrak

Zintzilikatu zure argazkiak
**www.guregipuzkoa.net**
webgunean edo bidali
**udala@beasain.net**
posta elektronikora zenbait beasaindarrek egin dute jada.

**Animatu zaitez!**



"Umeen sokadantza", 2010. Xabier Garmendia.



"Axeri dantza taldea", Beasaingo udala.

"Odolki dasta-lehiaketa, San Martin Plazan", 1997. Carlos Huerta.





"Txu-txu trena", 1997. Beasaingo udala.

## HERRIA GUZTION ARTEAN ERAIKIZ

Alkatearen txokoa...



Koldo Agirre

Azken urteotan Beasaingo erdigunean aldaketa ugari bizi izan ditugu. Baina erdigunea ez da izan gune bakarra, auzoetan ere zenbait aldaketa eman baitira. Honen adibide garbia Astigarreta dugu, aldaketa positibo nabarmena bizitzen ari delako auzoaren biziberritzearekin.

Aldizkarian Garcia aita-semeak ere hizpide izango ditugu, eurak baitira aurtengo Beasaingo Paperak edizioko liburuaren egileak.

Bestetik, ale honetan azken udalbatzarrean onartu ziren alderdi politiko zein zinegotzien ordain-sariei buruzko informazioa ere azalduko zaigu. Datu hauek irekiak izan arren, herritar askok ez du horren daturik ezagutzen eta, gure ustez, garrantzitsua da jendearengana informazio hau iristea. Halaber, batzorde bakoitzeko buruaren jendeaurreko arreta ordua bertan agertzen da, udala zuengana gerturatu eta zuen ideiak zein ekarpenak biltzeko. Herria denon artean eraikitzea baitugu helburu!

En los últimos años hemos sido testigos de muchos cambios en el centro de Beasain. Pero esta zona no ha sido la única, ya que en varios barrios también se han dado diversos cambios. Astigarreta es un claro ejemplo de ello: se está dando una revitalización muy positiva en ese barrio beasaindarra.

La revista recoge también la entrevista a los García. Padre e hijo han sido los autores de la última edición de Besaingo Paperak.

Por otra parte, este número incluye información sobre las asignaciones económicas de los partidos políticos y concejales, aprobados en el último pleno. Aunque esta información esté abierta a la ciudadanía, muchos no conocen ningún dato al respecto. Para nosotros es muy importante hacer llegar dicha información a las y los beasaindarras. Asimismo, se especifican los horarios de atención a la ciudadanía por parte de los responsables de cada comisión, con el fin de acercar el Ayuntamiento a todos vosotros y recoger vuestras ideas y aportaciones. ¡Queremos construir Beasain entre todos!

# Ba al zenekien edonor joan daitekeela udalbatzarretara?



### Paki Aguirre

“Primeran iruditzen zait batzarrak irekiak izatea. Nik zoritxarrez ezin dut joan, ordutegia ez datorkit-eta oso ongi. Bestela, oso gustura joango nitzateke. Eskertzekoa da Udalaren ateak herritarrei irekita egotea. Orain, zalantza edota proposamen bat izanez gero, udaletxera joango naiz. Entzun dut jende asko joan dela dagoeneko udal ordezkariengana. Espero dut horrelako neurriak herriaren eta herritarren onerako izatea”.



### Luis Esteban Mendoza Zamora

“Me parece muy bien que la gente pueda acudir a los plenos del ayuntamiento. Pienso que es tal como debería de ser. Aún así, no veo que la ciudadanía tenga interés en ir. Lo que me parece increíble es que haya tantos parados en el país y la gente no se agolpe a las puertas de las instituciones. Muchas personas no hacen nada por salvar su propia situación, ni por luchar por su futuro. Sí es necesario abrir la puerta a la ciudadanía, eso lo veo muy positivo, porque en la época franquista los que estaban en el poder… ellos se lo guisaban y se lo comían… pero hoy falta interés y ganas de esforzarse”.



### Jose Luis Irastortza

“Banekien udalbatzarretara edonor joan zitekeela entzule gisa, ni inoiz ez naiz saiatu joaten. Garrantzitsua da udal ordezkariek mota guztietako iritziak jasotzea eta ezagutzea. Oraindik osoko bilkuretara joan ez naizen arren, badut kexa bat Udalari helarazteko: Lizeoko autobus geltokia orain dagoen bezala gaizki dagoela uste dut, eserlekuak hormigoizkoak dira eta neguan bertan eserita egoteko oso hotzak dira. Gainera, autobus geltoki horrek atzealdetik babestua egon beharko luke, haizeak hortik jotzen baitu beti”.

**MARTÍN GARCÍA ETA IGOR GARCÍA-FALCES.**

"Beasain: 1862 Trenaren bideetatik barna" liburuaren egileak.

# "Liburua Beasaingo historia hobeto ezagutzeko kontsulta tresna izan daiteke"

**Martín Garcíak eta Igor García-Falcesek zazpi urte behar izan dituzte orain Beasaingo Paperak bilduma-ren 19. alea den lana plazaratu ahal izateko, *Beasain, 1862 trenaren bideetatik barna* izenburupean. Aitak eta semeak, hurrenez hurren, ikerketa lan itzela egin dute, 1862tik 100 urteko historia, irudien eta dokumentu esklusiboen bitartez, liburu batean jasoaz. "Argitalpen hau gure herriaren erradiografia moduko bat da, urteetan zehar bere bilakaera islatzen duena", diote.**

**¿Cómo se gestó la idea de lanzar este libro?**

**Martín García.** Conseguí unos planos en el Archivo del Patrimonio de Renfe de Bilbao, originales que los ingenieros franceses trazaron en 1862; aquellos planos esbozan ciertas construcciones, caseríos, caminos, etc. Tomando esos planos como base, empezamos a trabajar, investigando, recabando información, consiguiendo documentos para aunar más datos de aquella época: cómo era Beasain entonces, los accidentes geográficos (casas, huertas…). Nuestro objetivo ha sido, desde una primera instancia, conseguir una radiografía lo más completa posible de lo que era Beasain en 1862.

**¿Y cómo habéis plasmado esa radiografía?**

**Martín García.** La publicación consta de un total de siete sectores, y cada uno de ellos contiene un trozo del plano originario. El primer sector corresponde a Antzizar, el segundo a Igartza, el tercero a la zona de la Estación, el cuarto al Casco Urbano, el quinto a Ugartemendi-Senpere, el sexto a la Fábrica (CAF) y el séptimo, a Lazkaibar. Por lo tanto, si alguién está interesado en conocer la historia de una zona específica del municipio, lo puede encontrar en nuestro libro.

**Igor García-Falces.** Hay barrios que en aquellos tiempos no formaban parte de Beasain. En cinco kilómetros de trazado se descubren muchas cosas de antaño. Por ejemplo, en esos mapas aparecen ocho caseríos derribados, de los cuales seis se volvieron a construir.

**¿Esta publicación pretende ser una comparativa con el Beasain actual?**

**Martín.** Para realizar este trabajo nos inspiramos en el libro "Antigua" de Txillardegi, que recoge los más mínimos detalles de lo que marcaban los diversos planos y fotografías a su alcance.

**Igor.** Sí, y partiendo de esa inspiración, quisimos aplicar la idea de lo que hay 100 años después, es decir, hemos querido plasmar la evolución de Beasain comparando las dos realidades mediante los planos de 1862 y las fotografía de 1961 y 1962, respectivamente. Es una comparativa visual que refleja toda esa evolución durante 100 años.

**¿Cuanto tiempo os ha llevado publicar este trabajo?**

**Martín.** En total han sido unos siete años, los dos últimos trabajando de forma conjunta.

**Igor.** El mayor peso lo ha llevado mi padre, es el que ha aportado las fotos, las ideas, el desarrollo creativo… y yo me he centrado más en la redacción y en confirmar datos.

**¿Durante el proceso de elaboración os habreís encontrado con algún elemento sorpresivo, no?**

**Martín.** Nos hemos llevado muchas sorpresas. Cuando desarrollábamos e indagábamos sobre cada punto que marcaba el plano encontrábamos datos que desconocíamos por completo. Por ejemplo, yo no pensaba que iba a encontrar tantos topónimos.

**Igor.** Es increíble lo que aprendes durante el proceso.

**El tren también tiene un peso significativo durante la narración.**

**Igor.** Sí, digamos que es uno de los ejes. El hilo conductor es doble: por una parte está el trazado del ferrocarril y, por otra parte, el tiempo, es decir, todos los años que han transcurrido desde 1862, tomando como base el camino del tren, que es el que marca el trazado del mapa.

**¿Podría ser una herramienta útil para preservar la memoria histórica del municipio?**

**Martín.** Diría que sí. Se puede utilizar como libro de consulta, porque contiene datos históricos del pueblo. Hemos intentado descubrir cosas nuevas y referencias que desconocíamos. Es un libro muy útil para conocer el número de habitantes, sus emplazamientos, los cambios de propiedad, precios de entonces, el nombre de los terrenos, etc.

**Igor.** Ha sido muy enriquecedor para nosotros, y esperamos que lo sea también para los que tengan curiosidad por indagar y descubrir nuevas facetas de nuestra historia.



AZAROAK 5, LARUNBATA: AZOKA BEREZIA ETA ODOLKI LEHIAKETA

# Baserritarren produktuak, punta-puntakoak

**El próximo sábado día 5 tendrá lugar la feria extraordinaria de productos gastronómicos típicos. Mucha gente se acerca simplemente para disfrutar del buen ambiente que se genera. Pero los baserritarras que toman parte en el concurso y en la feria de todas las semanas, exponen algunos argumentos de por qué es mejor comprar sus productos. Saben que el horno no está para bollos, pero lamentan que la gente les dé la espalda e ignore lo que tiene a su alrededor: alimentos de la mejor calidad que nada tienen que envidiar a los de las grandes superficies. Bajo estas líneas, la feria extraordinaria vista por personas extraordinarias.**



**IGNACIA ARANBURU**
**Murugoena baserria**

“Gauzak txarrera aldatu dira. 16 urterekin hasi nintzen azokara jaisten. Garai hartan jendea gure produktuak erosteko irrikitan egoten zen; orain, ordea, ohitura hori zeharo galdu da. Azoka berezira denboraldiko produktuak eramango ditugu: eskarola, tipula gorria, urrak, patata, arrautza, brokolia, azak, azenarioak, azak, porrua... horiek guztiak saldu baino lehenagoko prozesua oso luzea da; lan eta sakrifizio handia eskatzen ditu baserriak, baina jendeak ez du alderdi hori ezagutzen, ez zaio-eta interesatzen. Etxekoak diren produktu naturalak ez dituzte erosten. Ea azoka berezi honetan jendeak gehiago erosten duen!”.



**MARIA JESUS MUJIKA**
**Altune Baserria**

“Orain dela zenbait urte izan zen gure urrezko garaia, hori zen hori saltzea!! Beasainen, Zumarragan edota Ordiziako azoketan ikaragarri erosten zuen jendeak, etxera itzuli behar izaten genuen baratzatik elikagai gehiago hartzera! Garai haietan halako ilusioa geneukan... beste giro bat bizi zen... panorama asko aldatu da; orain jendeak produktuen itxurari, kanpokoari, ematen dio garrantzia. Tristea da baina gazte askok ez dakite tomatea nondik ateratzen den! Sari asko irabazi ditut azoketan, horrek noski salmentan eragina du, baina bultzada handiagoa eman behar zaie horrelako ekimenei; herritarren esku dago azokaren jarraipena”.



**ROSARIO TXINTXURRETA**
**Atari eder baserria**

“Porruak, azak, azaloreak, brokolia, espinakak, letxuga gorria eta berdea, azelgak, erremolatxa, tipulina, patata, piperrak, piperminak, kalabaza, kalabazina, udareak, tomateak, perexila, zilantroa, apioa, irasagarra... barietate handia eramango dugu azokara, noski! Azoka Berezira daukagun onena eramango dugu. 52 urte daramatzat azokara etortzen. Orain jende gutxiago etorri arren, ikusten da leku berriak jende gehiago erakartzen duela; orain denda gunetik gertuago gaude eta hori nabaritzen da. Ea aurtengo azoka bereziak arrakasta duen, krisiak gauzak asko zaildu dituen arren”.

## Bertan da Odolki Lehiaketaren XXVII. txapelketa

El XXVII Concurso y cata de morcilla, que se celebrará el próximo sábado día 5, contará un año más con participantes de diversos puntos de Euskal Herria. Como siempre, los miembros del jurado tendrán que afinar el gusto y decantarse por la mejor morcilla de la temporada, que echa a andar oficialmente tras la cita beasaindarra.



**JOSE IGNACIO URKIOLA**
Odolki Lehiaketako epaimahaikidea

“Odolki onena aukeratzerako garaian, itxura, ebakitzea, barruko txikitua eta zaporea hartzen dira kontutan. Armonian egon behar dute irizpide horiek, ezin du horietako batek gailendu. Hori da odolki onenaren gakoa. Orain tendentzia da zapore fina izatea, espezia gehiegirik gabe. Urtetik urtera maila hobetzen ari da odolki lehiaketan. Ekimen hau “odolkiaren txupinazoa” bezala da, hortik aurrera hasten baita produktu honen sasoia”.

# Herritarren parte-hartzea,

**Beasaingo Udalak parte-hartzea finkatu du lan-ildo nagusitzat. Herritarren partaidetza izango da legealdiaren bidea markatuko duena. Hori horrela, herritarren hitza aintzakotzat hartua izan dadin, udal gobernuak hainbat gairen bueltan beasaindarrek dituzten iradokizunak, kezkak, proposamenak edota iritziak jaso ahal izateko ordutegi batzuk zehaztu ditu. Hala, jendeak zuzenean zinegotziekin egoteko aukera izango du. Zinegotzi bakoitzak, astero ordu betez, herritarrei harrera pertsonala egingo die. Beasaingo Udalak abendura bitarteko proba egingo du. Bestetik, batzorde desberdinetan parte-hartzeko deialdia zabalik dago oraindik; edonork har dezake parte lan taldeetan.**

**A continuación se especifican las distintas vías de participación establecidas por el Ayuntamiento de Beasain:**

## HERRITARRAK HARTZEKO ORDUTEGIAK:

### Astelehena:

18:30 -19.30

-GAZTERIA ETA KIROLA / Juventud y Deporte: Asier Sarriegi.

-UDAL ANTOLAKUNTZA / Organización municipal: Aitor Larburu.

De 19:00 a 20:00 horas:

-HIRIGINTZA, OGASUNA ETA ONDAREA / Urbanismo, Hacienda y Patrimonio: Koldo Agirre.

### Asteartea

12:00 -13:00:

-TURISMOA, ZERBITZUAK, LANDA INGURUNEA ETA INGURUMENA / Turismo, Servicios, Medio Rural y Medioambiente: Mari Mar Celaya.

16:00 – 17:00 horas:

- PARTE-HARTZEA, BERDINTASUNA, MIGRAZIOA ETA HEZKUNTZA / Participación, Igualdad, Migración y Educación: Zezilia Herrador.

### Asteazkena

20:00 - 21:00

-GIZARTE ONGIZATEA / Bienestar Social: Iñaki Saldaña.



# Udalaren giltzarri

## NOLA PARTE HARTU BATZORDEETAN?

Hainbat bide daude batzordeetan parte harte hartu ahal izateko.

1. www.beasain.net

   Beasaingo Udalaren webgunean agertu berri den fitxa beteaz, "Berriak" sailean.

2. E-Posta bitartez: harrera@beasain.net.

3. Telefonoz: 943 02 80 50.

"El pasado mes de octubre se formó el primer grupo de trabajo estable, con los primeros ciudadanos que se han inscrito en las diversas comisiones que conforman el consistorio"

### Lan talde iraunkor bat sortu berri dute

Beasaingo Udalak jakinarazi nahi du joan den urriaren amaieran jada izen eman zuten herritarrekin bilera bat egin zela. Bilkura hartan adostu zen, besteak beste, "lan talde iraunkor" baten sorrera. Hasiera batean, talde hori hilean behin elkartuko da, hots, **hileko bigarren ostegunean, arratsaldeko 18:00etan, Igartza jauregian**. Lan talde berri horren helburua da, herriko beharrak aintzat hartuz, hainbat gai lantzea, beti ere parte hartzearen alderditik. Hainbat proiekturen inguruan dauden ikuspegi desberdinak kaleratu, herritarren iritziak jaso eta zenbait gairen inguruko hausnarketa egingo ditu lan talde egonkorrak.

## AUZOETAKO BILEREN EGUTEGIA

El Ayuntamiento de Beasain desea conocer de cerca las necesidades de los barrios y sus habitantes. Por ello, ha fijado las siguientes fechas para celebrar reuniones en los citados puntos:

| | |
|---|---|
| Azaroaren 9a: | **MATXINBENTA** 18:00 Elkartean. |
| | **ASTIGARRETA** 20:00 Astauzel Elkartean. |
| Azaroaren 11a: | **GARIN** 18:00 Muñogain elkartean. |
| | **ARRIARAN** 20:00 Intxaurpe Elkartean. |
| Azaroaren 14a: | **GUDUGARRETA** 18:00. |
| | **BEASAIN MENDI** 20:00. Batzar aretoan. |
| Azaroaren 17a: | **IGARTZA AUZOA, INGURUAK** 18:30 Igartzan. |
| Azaroaren 22a: | **LAZKAIBAR- EZKIAGA:** 18:30 Murumendi ikastetxea. |
| Azaroaren 24a: | **ERDIGUNEA** 18:30 Batzar aretoa. |



"El grupo de trabajo se reunirá una vez al mes para analizar los temas que atañen a Beasain y su ciudadanía, tomando en cuenta la opinión de esta última"

# Las vivencias de dos cooperantes, en primera persona

**El Ayuntamiento de Beasain abrió hace unos meses una convocatoria para jóvenes cooperantes con el fin de proporcionar una ayuda a aquellos interesados en llevar a cabo proyectos en países en vías de desarrollo. Gracias a esa subvención, Haizea Fernandino y Jaione Odriozola han visto su sueño cumplido: la primera se trasladó a Nicaragua y la segunda ha podido ser testigo de la realidad boliviana. Las dos nos narran, en primera persona, sus experiencias.**



**Jaione Odriozola, 25 urte.**

- Bolivian izan da FISC gobernuz kanpoko erakundearekin.
- Gizarte Lana ikasten ari da.
- Boluntariotza lanak egiten ditu Caritaseko etorkinekin eta Loiola etxean, besteak beste.





"Boliviako Sucre hiriburuan eta Colquechaca-ko komunitatetatik ibiltzeko aukera izan dut. 33 egun eman ditut bertan, FISC-eko Salongo programarekin. Eskola mugikorraren proiektuan egin dugu lan. Hiriburuko auzo desberdinetatik ibiltzen ginen, kaleko ume langileekin lanean aritzeko. Proiektu honen helburua umeak eguneroko errutinatik atera eta ordu batzuetan ume sentiaraztea zen. Umeen beharrak identifikatu eta diagnostikatu ditugu. Gainera, aste betez FISC-ek Colquechacan martxan zuen beste proiektu bat ikusi nuen: komunitatean, elikagaiak landuz eta merkataritzaren bidez produktuak salduz, diru iturriren bat izan dezaten lan egiten da. Halaber, nekazaritza guneetako hainbat komunitate ezagutu nituen eta emakumeekin burutzen dituzten gaitasun jardueretan parte hartzeko aukera eman zidaten. Boliviarrek aurpegiko irribarrea ez dute inoiz galtzen, ez dute askorik behar pozik bizitzeko. Kulturalki eta gastronomikoki ere asko ikasi dut, elikagaien eta beste gauza askoren izenak, esaterako".

**"Esta experiencia me ha servido para reflexionar y querer seguir en trabajos de cooperación."**



**Haizea Fernandino, 27 urte.**

- Nikaraguan izan da Los Pipitos erakundearekin elkarlanean.
- Hezkuntza Bereziko irakasle da Gasteizen.
- Txolarte elkartean bolondres gisa jardun zuen orain urte batzuk.





"Esperientzia guztiz positiboa izan da. Sei aste igaro ditut gutxi gora behera. Los Pipitos izeneko erakundearekin elkarlanean aritu naiz. Guraso elkarte bat da ezgaitasuna duten seme-alabak dituzten gurasoek osatzen dutena. Bertan denbora gehiagoz eskolatuak egon ezin duten ezinduekin tailer moduko batzuk egiten aritu naiz. Jendearen goxotasunak egiten du Nikaragua horren berezia. Oso atseginak dira, harrera paregabea izan da. Oso alaiak, umoretsuak eta langileak orokorrean; halaber, oso dean ezagutu kementsuak dira euren ekintzetan. Erakundituden gurasoak, borrokalari amorratuak dira... Oso interesgarria eta aproposa iruditzen zait gazteei kooperante gisa jarduteko aukerak erraztea, askotan ez baita erraza izaten horrelako lurralde batetara joatea, batez ere ikaslea zarenean. Berriro horrelako aukera suertatuz gero, Afrika aldera joatea nahiko nuke".

**"La cercanía de la gente es la que hace de Nicaragua un lugar tan especial"**

# Udal gastuak herritarrei helaraziz

Beasaingo Udalak bertan ordezkaritza duten alderdiei eta zinegotziei ematen dizkien ordain-sarien berri eman nahi dio herriari, herritarraren eskubidea delako Udal gastuen inguruko informazio ahalik eta zuzenen jasotzea. Ordain-sari horiek arrazoi desberdinengatik ematen dira, beti ere Udalaren funtzionamenduari lotutako lanekin lotura dutelarik. Ondorengo taulan laburtzen dira legealdi honetarako Udalbatzan adostutako ordainsariak. Halaber, aurreko legegintzaldiko gastuak jasotzen dira bertan.



| | AZKEN LEGEALDIA (HILEKO) | ORAINGO LEGEALDIA (HILEKO) |
|---|---|---|
| ALKATEAREN SOLDATA | 5.091,44€ | 4.031,21€ |
| ALDERDIENTZAKO ASIGNAZIOAK | 5.248,28€ | 5.850,00€ |
| ZINEGOTZIAK | 13.090,07 € | 10.250,00 € |

| | AZKEN LEGEALDIA (URTEKO) | ORAINGO LEGEALDIA (URTEKO) |
|---|---|---|
| ALKATEAREN SOLDATA | 71.280,16€ | 56.436,94€ |
| ALDERDIENTZAKO ASIGNAZIOAK | 73.475,92€ | 70.200,00€ |
| ZINEGOTZIAK | 183.260,98 € | 123.000,00€ |
| **GUZTIRA** | **328.017,06€** | **249.636,94€** |

JAITSIERA:
% 23,9a

## ACLARACIONES

***Teniendo en cuenta que el Alcalde está liberado con un salario fijo, no recibirá ningún dinero extra por asistir a las reuniones.**

***Tanto los miembros de la Comisión de Gobierno como los responsables de cada comisión percibirán como máximo 9.000 euros al año; salvo el presidente , que cobrará un plus por asistir a las reuniones de los organismos autónomos.**

***Al resto de los concejales se les pagará como máximo 6.000 euros al año, excepto si van a las reuniones de organismos autónomos.**

***A diferencia de la legislatura anterior, no se remunerará en los casos de falta de asistencia.**



# Udazken koloreen dis

**El otoño se viste de colores ocres, marrones y verdes que relucen especialmente en el barrio beasaindarra de Astigarreta. Allí nos acogen muy amablemente tres jóvenes que, además de guiarnos por sus recónditas y estrechas calles, nos desvelan su forma de vida en esa zona del valle; también nos confiesan sus inquietudes personales. Están contentos de vivir en Astiga-**

Udazkenak eskaintzen dituen koloreak, are eta biziagoak direla dirudi Beasaingo Astigarreta auzoan. Arratsaldeko 16:00ak dira eta eguzkiak disdira berezia ematen dio bailarako txoko eder horri. Bertan bizi diren hiru gaztek ongietorria ematen digute: Eider Ormazabal, Nader Koochaki Etxeberria eta Xabier Azkune. Bakoitza arrazoi zehatz batzuek bultzatuta joan zen horra bizitzera. Baina horrek ez dio axola. Axola duena Astigarretak duen xarma berezia indarrean eta balioan jartzea da. Beraz, auzoaren txoko guztiak erakusten dizkigute: eliza, apaiz-etxea, hegoalderantz ematen duten eta sekulako ikuspegia eskaintzen duten bi baserriak, garai bateko ostatua eta eskola, egun eraikitzen ari diren nekazal-etxea edota goikaldean kokatuta dagoen ermita, San Gregorio Magnoren omenez eraikia.



**La iglesia, la apaiz-etxea y el lavadero son algunos de los encantos que preserva Astigarreta.**

Eider orain dela 10 urte joan zen Astigarretara bizitzera: "Baserri bat erostekotan ginen eta hemen bat salgai zegoen, animatu egin ginen. Egia esan aste barruan ez dugu aukera handirik izaten lekuaz gozatzeko, senarrak eta biok hemendik kanpo egiten baitugu lana. Bi haur ditugu eta oso gustura gaude". Naderrek eta Xabierrek, berriz, hiru urte daramatzate auzoan. Apaiz-etxean bizi dira. "Bere garaian apaiz-etxea alokatzeko aukera suertatu zitzaigun eta... gaur arte. Ez ginen hona etorri herritik alde egitearren. Ez dugu uste zilegi denik landa ingurua eta hiriak puntu kontrajarrietan jartzea, hau da, betiko *clichée*tan erortzea. Azken finean, abantailak eta desabantailak erlatiboak dira".







# sdira Astigarretan

**rreta y, aunque acabaron en el alto de Mandubia por motivos diferentes, los tres comparten una misma idea: con creatividad y nuevas iniciaticas, la convivencia entre las distintas generaciones y las personas en general, es mejor. Astigarreta es el mejor ejemplo de ello.**

## Iturri zaharra, ur berria

Joxean Artzeren olerki batek dio: "Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik". Naderrek, Eiderrek eta Xabierrek ederki islatzen dute iturri zahar hori oinarri eta inspirazio izaki, garaikoen sormenak eta bizi kontzeptuak ederki elkarbizi dezaketela aurreko belaunaldien bizimoduarekin. Astigarretara iritsi zirenetik, hiru gazteek, bertako bizimodura moldatu ez ezik, hainbat ekarpen egin dituzte. Eiderrek, esaterako, bere umeak bertan hezitzeko determinazioarekin, auzoaren etorkizunari berme apur bat ematen dio. "Gaur egun hau da euren etxea, ez dute hau baino leku ederragoa izango jolasteko, oso gustura daude umeak hemen, eta oraingoz ez dugu inolako asmorik hemendik mugitzeko".

**Los tres jóvenes se han adaptado al barrio y han aportado iniciativas nuevas.**

"Potentzialki aukera asko dituen lekua da Astigarreta", dio Naderrek. Honek eta Xabierrek hainbat kultur ekimen bultzatu dituzte Beasaingo auzo horretara iritsi zirenetik. Joan den udan Astigarretako lehen zinema zikloa antolatu zuten eta horren ondoren, bi dokumentalez osatutako beste bat egin zuten. "Oso interesgarria izan zen aire libreko zine moduko bat antolatzea. Auzokide asko hurbildu zen, oso giro polita sortuz: adin, kultur eta afizio desberdinetako jendea bildu ginen mahai baten bueltan".

1920 urtean 193 biztanle zituen auzoak. Gaur egun, berriz, 15 bat besterik ez. Belaunaldien artean salto handia dago, bai, baina Astigarreta ez du zenbaki batek edo profil zehatz bateko pertsonek egiten. Bere betiko ezaugarriak eta bertan arnasten den armoniak, bizirik diraute. Hori da gakoa.

## 2011ko Astigarretako San Martin Jaiak

**Azaroak 13, igandea**

**11:30ean.- Meza Nagusia. Beasaingo San Martin parrokiako abesbatzak abestuko du.**

**12:30ean.- Aizkolariak. Azurmendi-Olasagasti**

**13:30ean.- Herri Bazkaria. Astigarretako "Astauzel" elkartean.**

**Egunean zehar...**

**"Laja eta Landakanda" trikitilariak eta Mañukorta, Zeberio eta Goikoetxea bertsolariak izango dira auzoa beren doinuez alaitzeko.**





# Beasain [agenda]

2011ko azaroa

beasainen erosi

## 3 OSTEGUNA

17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Remember, remember, stories in November". Udal Liburutegian.

## 4 OSTIRALA

19:00etan.- Pintura erakusketa: Aitor Merchán Zabaleta. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

22:00etan.- Musika kontzertua: Igelaren Banda. Igartzako jauregian.

## 5 LARUNBATA

10:00etan.- Bertako jeneroen azoka berezia eta ardo azoka. Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia. Gernika pasealekuan eta San Martin plazan.

12:00etan.- Odolki-dastatzea eta lehiaketa, XXVII. edizioa. Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia. Gernika pasealekuko pilotalekuan eta San Martin plazan.

15:00etan.- Herri bazkaria. Antolatzailea: Beasaingo Odolki Kofradia. Loinazko San Martin plazapean.

18:30ean.- Kale antzerkia: "Jira bira. Trapu zaharrak". Kale Nagusian.

19:30ean.- Disko festa Joseinarekin.

## 6 IGANDEA

08:00etan.- Mendi-irteera Murumendira eta Garina, "finalistaren eguna" ospatzeko. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

10:00etan.- Extremadurako azoka. Antolatzailea: La Bellota taldea. Gernika pasealekuko pilotalekuan.

12:00etan.- "Sones de Extremadura" taldearen abesti emanaldia. Antolatzailea: La Bellota taldea. Gernika pasealekuko pilotalekuan.

13:00etan.- Donostiako "Virgen de Guadalupe" taldearen dantza emanaldia. Antolatzailea: La Bellota taldea. Gernika pasealekuko pilotalekuan.

17:00etan.- Haurrentzako zinea: "Arthur eta munduen gerra". Usurbe antzokian.

## 8 ASTEARTEA

09:00etan.- XXII. Errezil sagar, fruitu eta barazki lehiaketa. Loinazko San Martin plaza azpian.

17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Filomena Muxugorri errege". Udal Liburutegian.

## 9 ASTEAZKENA

17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Nire etxea, zure etxea da". Udal Liburutegian.

## 10 OSTEGUNA

18:00etan.- Parte hartze lan talde iraunkorraren bilera. Igartzan.

21:00etan.- Zine-kluba: "Tamara Drewe" filmaren proiekzioa. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba. Usurbe antzokian.

## 11 OSTIRALA

18:00etan.- Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariek lagunduta.

20:00etan.- Antzerkia: "Ocasiones especiales". Usurbe antzokian.

22:30ean.- Antzerkia: "Ocasiones especiales". Usurbe antzokian.

## 12 LARUNBATA

18:00etan.- Kultur ekitaldia: Asmubeko abesbatza, saloi dantzak eta zenbait dantza mota. Antolatzailea: Asmube. Usurbe antzokian.

## 13 IGANDEA

08:00etan.- Mendi-irteera Urnieta-Adarra-Urnieta. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

17:00etan.- Haurrentzako zinea: "Kung Fu panda 2". Usurbe antzokian.

## 20 IGANDEA

17:00etan.- Haurrentzako zinea: "Phineas y Ferb". Usurbe antzokian.

## 22 ASTEARTEA

18:00etan.- Ipuin kontaketa: "Eguzkisemeren istorioa". Udal liburutegian.

19:00etan.- Txistulariek kaleak girotuko dituzte.

19:30ean.- Santa Zeziliaren oroimenez kontzertu berezia. Antolatzailea: Musika Eskola.

## 3 ASTEAZKENA

09:30ean.- Eskolaumeentzako zinea: "Irabazle". Usurbe Antzokian.

## 24 OSTEGUNA

21:00etan.- Zine-kluba: "Women without men" filmaren emanaldia. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba. Usurbe antzokian.

## 26 LARUNBATA

20:30ean.-Gazte abesbatzen topaketa: Loinatz Musika Eskolako abesbatza, La Salleko Izan-Izar abesbatza, Oroith Txiki abesbatza eta Xanbe abesbatza. Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

## 27 IGANDEA

08:00etan.-Mendi-irteera: Pasaia-Hondarribia. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

17:00etan.-Dantza emanaldia. Antolatzailea: Agibaile. Usurbe antzokian.

## 30 ASTEAZKENA

11:00.-Antzerkia: "Eta zer II". Usurbe antzokian.

L.G. SS-1284-2008
3854-011
Paper birziklatuan egina